



## Proiektuak-2015

## Bermeoko Portu Zaharreko kaia konpontzea

## Laburpen-fitxa




Deskribapena	Egilea/Kontratista/Data	Zenbatekoa	Epea
Proiektuaren idazketa	ESTEYCO (2015eko azaroa)	1.067.550,68 € (BEZa barne)	4 hilabete

**Proiektuaren kontratazioa:** Ebazpena, 2015eko irailaren 1ekoa, Zerbitzu zuzendariarena, obrak urgentziaz egin behar direla adierazten duena.

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Kaltetutako egituraren proiektua egin zen 2003an, jatorrizko kaiaren azalera zabaltzeko asmoz, pasealekua eta bidea barne hartuko dituen eremu bat egiteko. Egitura hori, jatorrizko proiektuan, 35 zentimetroko lodierako lauza armatu trinkoz egin zen, eta bi norabidetarantz armatuta, bi aldeetan (gainekoa eta azpikoa). Egitura jarri ondoren, 2008an eta, geroago, 2014an, "dumper" erako ibilgailu astunak igaro ziren maiz bertatik, harri-lubetak eta blokeak garraiatuz, olatu-dikea konpontzeko lanek (2008 eta 2014) eta Frantxun Atxak kaikoek (2014) iraun zuten bitartean. Joan-etorri horien ondorioz sortu dira proiektu honen bidez konpondu nahi diren kalteak.



Hauek dira **proposatutako jarduketak**:

- Kalte nabarmenak dituzten eremuetan, taula berreraikitzea, aurrelauza kolaboratzailez eta horien gainean egindako hormigoi armatuzko lauza trinkoz osatutako soluzio bat erabiliz.
- Kalte gutxiago jasan dituzten eremuetan, zuntz ijertuzko sendogarriak jartzea, albeoplakei barnealdetik erantsita, flexiorako portaera hobetzeko aurreatezatuaren noranzko ortogonalean; eta albeoplaken betegarria, ebakitzailerako portaera hobetzeko.
- Obra guztian, egungo zoladura- eta inpermeabilizazio-paketea berritzea.

Hauek izango lirateke tratamendu horien **eraikuntza-faseak**:

- Egungo zoladura kentzea. Hala, sendotu beharreko eremua deskargatzen da, eta, zuntzeko sendogarriak instalatu ondoren, berriro kargatuko da, sendogarriari karga sartuz, modu sekuentzialean.
- Tratatu beharreko beheko eremua garbitzea, presio-zurrusta bidez; hala, zuntzeko xaflak jarriko diren gainazaleko zimurrak areagotuko dira.
- Zuntzeko sendogarriak instalatzea, helburu hauetarako itsasgarri epoxikoak erabiliz.
- Plaken albeoloak betetzea, injekzioak eginez, gainaldeko eremuan egindako zuloetatik.
- Gainaldea inpermeabilizatzea.
- Zoladura-paketea berriz ere jartzea egituraren gainean. Birkarga horrek ahalbidetuko du taulan eginiko sendogarriak kargan sartzea.

### INGURUMEN-HOBEKUNTZAK

Obra horiek gauzatzean, kontuan izan beharko da itsas ingurunea. Hori dela eta, ezingo da ezer isuri uretara, ezta ur-laminari kalte egin ere.

### PAISAIA-INTEGRAZIOA

Proiektuan hiriko altzarien partida bat sartu da, portuan dauden eserlekuen kopurua areagotzeko. Hala, oinezko eta herritarrentzako eremua zabalduko da portuan; izan ere, gunehonetan, kaia partekatu egin behar dute oinezkoek eta ibilgailuek.